



Zuzia

HATZIESIA APURTUZ, BIDEA ZABALDUZ

12. Zenbakia.

2023ko apirila.

BERRIAK



UKAZIOAREN AURREAN, EUSKAL HERRIAK ASKATASUNA

JARDUN koordinadorak Aberri Eguna burutu zuen apirilaren 9-an, Gernikan, Euskal Herri Langileak pairatzen duen zapalkuntza iraultzeko eskura dituen tresnarik garrantzitsuenak antolakuntza eta mobilizazioa direla ulertuta. Hori dela eta, JARDUN-ek Euskal Herri langilearen iden-

titatea aldarrikatuz bere suntsiketara bideratutako estrategiari aurre egiteko eguntzat jotzen du Aberri Eguna; hain zuzen ere, aldarrikapenaren bitartez kontzientziazioari ekiteko eguna eta, langileok banatuta eta esplotatuta mantendu nahi gaituztenen jazarpenaren aurrean, elkartasu-

nerako eta batasunerako eguna. Azken finean, Euskal Herri Langileak euskal estatu independente eta sozialistaren eraikuntzan aurrerapausoak eman eta antolaketa marko propioen bitartez hau eraikitzeke gurarian berresteko eguna. Gauzak horrela, koordinadorak

egun osoko egitaraua antolatu zuen Gernikan. Egunaren lehenengo zatia mobilizaziorako eta kontzientziatorako baliatu zuen, manifestazioa eta ekitaldi politikoa burututa.

Bertan, espainiar eta frantziar estatuek Euskal Herri Langileari eskaintzeko duten bakarra esplotazioaren eta jazarpenaren eskutik datorren ukazioa dela argi utzi zuen. Hala ere, JARDUNek argi eta ozen aldarrikatu zuen Euskal Herria, izaera geografiko edota folklorikoko kontzeptua izateaz haratago, euskaldunon nazio izaerarekin uztartutako izaera politikoko terminoa dela eta ukaezina dela euskaldunok existitu existitzen garela. Era berean, egungo sistema kapitalistan, Euskal Herria klase zein nazio parametroetan herri zapaldua dela azaldu zen, eta estatu kapitalistek Euskal Herriko langileontzat duten eskaintza esplotazioa, injustizia, jazarpena eta ukazioa direla mahaigaineratu. Dena den, JARDUNek argi utzi zuen Aberri Eguna ez dela

mugarri bat suposatuko duen ekimena, Euskal Herriaren askapena egunerokotasunean pauso motel baina irmoz egikaritu beharra baitago. Alta, Aberri Egunean ezkutatu eta ukatu nahi duten errealitatea, suntsitu nahi duten identitatea, Gernikako kaleetan izan bazela agerikoa zela aldarrikatu zuen.

Horrekin batera, koordinadorak gogor kritikatu zuen ildo instituzionala, honek Euskal Herriko langileon estrategian izaera zentralik eduki ezin duela argi utzita, koordinadoraren hitzetan Euskal Herri Langilea ez baita etsaia berari emateko prest dagoen hondarreatik borrokatuko. Halaber, instituzionalismoa erreformismorako tresnatzat jota, prozesu iraultzailearekin bat egin gabe bigarren lerroa mantentzen diren elementuak kapitalaren mesedepan lehen lerroan jartzeko tresna gisa hartu zuen. Izan ere, JARDUNen arabera, Euskal Herriko langileon askapenean historikoki emandako pauso oro etsaiak inposatu-

tako markoetatik kanpo eman da.

Horiek horrela, Euskal Herriko langile klaseak botere politikoa eskuratzea helburu izan behar duen prozesu iraultzailea kontraboterean oinarritu behar dela aldarrikatu zuen; estatuen botere efektiboa deuseztatu eta inposatutako instituzioak gainditzea ahalbidetu behar duen kontraboterea, alegia, logika kapitalistatik kanpo garatu behar dena. Horrela, apurketa politikoren eta konfrontazioaren apustuan berretsi zen koordinadora, hauek kontraboterea eraikitzeko motortzat joz Euskal Herri Langilearen proiektu politikoaren gauzapean bidean. Bukatzeko, Euskal Herriko mugimendu iraultzailearen proiektu politikoren egikaritzea langileok pairatzen dugun esplotazioarekin amaitzeko eta euskaldunen identitate nazionalaren biziraupena bermatzeko euskal estatu independente eta sozialistaren erdiespenarekin lotu zuen.

TORTURAREN AURKAKO EGUNA

Otsailaren 13an, Euskal Herrian urte luzez espainiar estatuek aurrrera eramandako tortura kasuak gogora ekartzeko eta salatze kanpaina burutu zuen ASKE antolakundeak. Intxaurrendoko kuartelaren atarian egindako agerraldian, bertan ez ezik, Euskal Herriko eta espainiar estatuko kuartel eta komisarietan ere askapen prozesuaren parte edo gertuko izateagatik milaka torturatu izan zirela ekarri zuen gogora ASKEk zifrak baliatuz: 5657 tortura kasu. Agerraldia burutzeko Intxaurrendoko hautatu zen, bai honek bertatik igarotakoek pairatutako tortura latzen-



gatik, bai Guardia Zibilak haue-
tan jokaturako paperarengatik
Euskal Herriaren gogoan errotu-
ta egotean duen sinbolismoa-
rengatik. Gauzak horrela, ASKEk
lanketa burutzeko orduan, tortu-
ra iraganaz haratago berriz ger-
tatzeko baldintzak indarrean
daudela gogorarazi zuen, estatu

espainolak bere lege burgesetik
kanpo den praktikak burutzeko
duen prestutasuna gogora eka-
rriz. Era horretan, etorkizunean
inork torturarik pairatu behar ez
izateko, Euskal Herri Langileari
borrokatzea besterik ez zaiola
geratzen aldarrikatu zuen ASKE-
k, euskal estatu independente

eta sozialistaren erdiespenerako
bidean. Behin agerraldia buka-
tua, zipaioek honetan parte har-
tu zuten hiru kide miatzeko eta
identifikatzeko operatiboa anto-
latu zuten, pikoloen lan zikina
eginez eta euren morrontzari
leial jarraituz.



FAXISMOAREN AURREAN, EUSKAL HERRI LANGILEA ANTOLATU

Martin Saenz de Ynestrillasek,
beste zenbait faxistekin batera,
zenbait ekimen burutzeko as-
moa zuen otsailaren 23an, Eus-
kal Herriko puntu ezberdinetan
zehar. Horren aurrean, JARKI
antolakunde iraultzaileak hain-
bat ekimen antolatu zituen ho-
riek zapuzteko asmoarekin, an-
tolakunde iraultzailea kontziente
baita faxismoaren eta bere
morroien aurrean isilik eta otzan

geratzea ez dela aukera bat, eta
honi era irmoan aurre egitea
bestarik ez duela mugimendu
iraultzaileak. Gauzak horrela,
faxistek, betiere zipaioengatik
ondo zainduta, euren emanaldi-
ari ekin zioten Donostiako Alder-
di Ederren. Txakurrek faxistak
babesten zituzten bitartean, or-
dea, denbora sobera izan zuten
haiei aurre egiteko bertaratuta-
koen aurka oldartzeko. Bien bi-

tartean, euren eguneko egitarau-
a Donostiako Club Cantabrikon
ezin izan zutenez egin, lehenen-
go Bilboko Ercilla hotelera eta
geroago Leioako NH hotelera
aldatzen saiatu ziren faxistak.
Hala ere, antolakunde iraultzai-
leak hauetan kontzentratzeko
deialdiak burutu ostean, faxistek
euren egitaraua bertan behera
utzi behar izan zuten.

LANGILEON HISTORIA BORROKAZ IDATZIA DA

JARKI antolakunde iraultzaileak, Martxoaren 3aren harira, Arabako langileen borrokaren esperimentziak partekatzeko mahai ingurua antolatu zuen otsailaren 22an, Judimendiko auzo elkarte-an. Horri jarraipena emateko, memoriaren ibilbidea burutu zuen martxoaren 1ean, Martxoaren 3ko gertakarien lekuko izan ziren Zaramagako kaleetan zehar. Bukatzeko, antolakunde iraultzaileak Martxoaren 3an Gasteizen deitutako manifestazioan blokea antolatu zuen. Izan ere, 1976ko Martxoaren 3ko

gertakariak urrun geratzen badi-ra ere, egun Euskal Herri Langileak pairatzen duen errealitatearen islatzat jotzen ditu antolakunde iraultzaileak. Zapalduak eta zapaltzaileak dauden bitartean, Martxoaren 3a oroitzapena beharrean, Euskal Herriko langileon errealitate hurbila izango baita. Hori dela eta, antolaketa eta elkartasuna hartzen ditu garaipenerako lehen osagai gisa, langile klasearen borrokak norbanakoez haratago izaera kolektiboa duen heinean. Langile klaseak ezin du bere etorkizuna

zapaltzen gaituztenen esku utzi. Era horretan, kontraboterea da zapalkuntza kapitalistapean langileok izan beharreko jomuga eta tresna. Bestalde, manifestazio amaieran, zipaioek bi gazte atxilotu zituzten, atxiloketen buru manifestazioan zehar kalez jantzitako hainbat txakur izan zirelarik. Ildo beretik, martxoaren 4an, gazte blokeak atxilotutako gazteei elkartasuna adierazteko eta atxiloketak salatzeako kontzentrazioak burutu zituen Gasteizen, Amurrion eta Lemoan.

KLASE FEMINISMOAZ BORROKA ANTOLATU

JARDUN koordinadorak, Martxoaren 8aren harira, emakume langilearen zapalkuntzaren auzia lantzeko kanpaina komunikati-

boa eta hitzaldiak burutu zituen. Koordinadoraren arabera, zapalkuntzak emakume langileon egunerokoaren parte izaten ja-

rraitzen du, sistema kapitalistak harreman patriarkalak sustatzen dituelarik bere interes eta beharrezane eusteko. Horrela, koordi-



nadorak emakume langileak pairatzen duen zapalkuntzaren hainbat adierazle ekarri ditu gogora: genero rolak, kosifikazioa, zaintza lanen zama, ugalaketaren gaineko kontrola, lanpostu feminizatuak eta eraso

matxistak. Izan ere, harreman patriarkalen bitartez, kapitalismoak genero eraikuntza baliatzen du emakumeen eta gizonen arteko dominazio-harremanak sostengatzeko, emakume langilearen gain uzten duelarik zain-

tza lanen zama osoa. Hori horrela, emakume langileari dagokio sistema kapitalistaren baitan lan birproduktiboak bermatzea, hauek soldatapeko lanarekin uztartu behar izan ohi dituelarik.

EUSKAL HERRIAK AMNISTIA

Garikoitz Etxeberria euskal preso politikoak, apirilaren 19an, espetxeak inposatu nahi zion bikoizteari uko egiteagatik isolamendura bidalia izan eta gero, zazpi egunetan zehar luzatu zen gose grebari ekin zion. Hau burutu bitartean, apirilaren 24an, Jon Kepa Preciado, Orkatz Gallastegi, Mikel San Sebastian, Aitor Cotano, Dani Pastor, Goierri eta Patxi Ruiz ere gose grebara batu ziren. Euren borrokaren helburuak lortuta, apirilaren 25ean, gose greba amaitutzat jo zuten.

Preso politikoek borrokak iraun bitartean, bai ASKEk hauei babesa eta elkartasuna adierazteko, bai aurrera eramaten ari ziren borrokak Euskal Herriko kaleetan oihartzuna izateko lanketa politikoa burutu zuen Euskal Herrian zehar. Izan ere, antolakunde antierrepresiboaren ustez, espetxean ematen ari ziren azken gertakari horiek, Euskal Herriko espetxeetan egonda ere, estatuek euskal preso politikoek aurka sostengatzen duten jazarpenak bere horretan dirauela agerian utzi dute. Era berean, estatuek euskal preso politikoek izatera ukatu, hauek sumitu eta beraien arteko arrakalak sortzera bideratutako estrategia darabiltela salatu zuen, hauek preso arruntak direnaren aitzakiapen. Hala ere, estatuek hauen aurka darabiltzaten salbuespen neurriek zein legediak preso politikoak egon badaudela

agerian uzten dutela mahai-gaineratu du ASKEk. Horrez gain, antolakunde antierrepresiboak irmoki adierazi du Euskal Herri Langileak azpiratuta mantentzen duen bitartean, estatuen aurkako borrokak jarraitu egingo duela, estatuak borroka horretan dihardutenen aurka gogor arituko direlarik. Gauzak horrela, preso politikoek existentzia, Euskal Herriaren azpirazioak dirauen bitartean, konstantea izango da. Hala ere, giltzapetuta egon

arren, preso politikoak Euskal Herri Langilearen parte izaten jarraitzen duten militanteak izanda, amnistia da hauen egoerari aterabidea eman diezaiokeen alternatiba bakarra. Ildo horretatik, Euskal Herri Langilearen askapenerako aurrebaldintza da amnistia, preso politikoek erabateko askatasunaz gain, hauek aurrera eramandako borrokaren zilegitzean eraikia izan behar dena.



KLASE ERAIKUNTZA NAZIONALA

Klaserik gabeko gizarte bati bidea ireki behar dion prozesu sozialista bati ekiteko beharrezkoa da langile klaseak botere politikoa hartzea. Hau, ordea, osotutako eta antolatutako subjektu politiko batek aurrera eramandako konfrontazioaren bitartez lortuko da bakarrik; Euskal Langileri Iraultzailearen eskutik, hain zuzen ere. Gauzak horrela, Euskal Langileri Iraultzailea subjektu gisa duen Euskal Herriko prozesu iraultzailea klase borrokaren baitan kokatu behar da, halaber, burgesiak bizirik dirauen bitartean ezin izango baita, inoiz, zapalkuntzarik eta esplotaziorik gabeko gizarterik sortu.

Izan ere, historian ez da egon zapalduak zapaltzailearekin akordioa sinatuz bere emantzipazioa lortu duen adibiderik. Klase gatazkak aurkakoen, hots, etsaien arteko guda du oinarri, zapalduon garaipena zapaltzaileen desagerpenaren eskutik datorrelarik. Ildo horretatik, alternatiba iraultzailearen eraketa eta honek garatu beharreko prozesu iraultzailea etsaiak suntsitzeko derrigorrezko tresna izan behar da, Euskal Herri Langilearen askatasuna lortzerako bidean. Hori da Euskal Herri Langilearen Alternatibak zehaztutako helburu estrategiko maximoak lortzeko era bakarra, Euskal Langileri Iraultzaileak botere politikoa lortzerako bidean. Euskal Herri Langilearen **helburu estrategiko maximoak** argiak dira:

- Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Behera, Nafarroa Garaia eta Zuberoa barnebiltzen dituen **Estatu independente eta sozialistaren eraikuntza**.

- Euskal langileriaren boterean, **klase gatazkaren gaitzitzean eta ekoizpen baliabideen sozializazioan** oinarrituriko gizartearen eraikuntza.

- **Emakume langileen zapalkuntza** forma guztien gaitzitzea.

- Euskal Herriaren **birbatzea**.

- Euskal Herriaren **berreuskalduntzea**.

Euskal Langileri Iraultzaileari ezinezkoa zaio askapen nazionala edota soziala gauzatzea bi elementu hauek oinarri dituen prozesu iraultzaile baten eskutik ez bada. Izan ere, Euskal Herriak pairatzen duen nazio zapalketa dela eta, prozesu sozialista ahalbidetu behar duen estatu independentea erdiestera bideratuta joan behar da autodeterminazioa. Azken finean, egitura estatala duten nazioetan, estatuaren forma hartzen duten egitura ekonomiko, politiko eta sozialen bitartez identitatea osatzen duten elementuak eta identifikazio prozesuak indartzen dira. Horrela, nazio sentipena argiago birproduzitzen da, nazio auziari erantzuna eman diezaiokeen aukera bakarra delarik Euskal Herriaren kasuan.

Hori dela eta, Euskal Herri Langilearen kasuan, klase parametroetan garatu behar den autodeterminazio prozesua prozesu iraultzailearen baitan dago kokatuta. Bestela esanda, Euskal Herriaren kasuan, autodeterminazioa independentzian eta sozialismoan bukatu behar den prozesu iraultzailea



"Euskal Herriko prozesu iraultzailea klase borrokaren baitan kokatu behar da... izan ere, historian ez da egon zapalduak zapaltzailearekin akordioa sinatuz bere emantzipazioa lortu duen adibiderik."

izango litzateke. Estatu independente eta sozialista Euskal Herriko langile klaseak bere proiektu politikoa gauzatzeko halabeharrezko baldintza da. Hortaz, prozesu horretan antzua da estatu burgesa bereganatzea edo hau egiteko egitasmoak sostengatzea. Estatu burgesa eta berauosatzen duten instituzioak suntsitu behar ditu Euskal Langileri Iraultzaileak eta propioak eraiki. Estatu sozialista estatu burgesa suntsitu ostean indarrean egon behar den gainegitura politiko eta juridikoa izan behar da, ekoizpen eredu sozialistan oinarritutako azpiegituraren isla izan behar dena.

Horrenbestez, nazio askapenaren bidean, independentziaren eta sozialismoaren ezinbestekotasunaren defentsa tinkoa burutu behar du Euskal Langileri Iraultzaileak, bere posizio politikoaren oinarri izan behar delarik. Eta, hain zuzen ere, Euskal estatu independente eta sozialistarako bidean Euskal Langileri Iraultzailearen egitasmoak jasotzen dituen prozesu iraultzailearen posizio politikoa da Klase Eraikuntza Nazionala.

Klase Eraikuntza Nazionalaz ari garenean, prozesu iraultzailea Euskal Herrian garatu ahal izateko

kontraboterean oinarritutako posizio politikoaz ari gara, kontrabotere parametroetan aritu behar diren Herri Erakundeak eduki behar dituen tresna nagusitzat. Kontraboterea osatu behar duten Herri Erakunde hauek klabe eraikitzaile eta iraultzailean eratu behar dira. Era horretan, Euskal Langileri Iraultzaileak bere instituzio iraultzaile propioak sortu behar ditu, estatu espainol eta estatu frantsesaren legalitateetatik kanpo. Bide horretatik, Herri Erakundeak Euskal Herri Langilearen eskura egon behar duten lanabesak izan behar dira. Euskal Langileri Iraultzailearen lanaren bitartez garatu behar dira, baina antolatu gabeko Euskal Herri Langileak prozesu iraultzailera batu eta hau sostengatzeko bitartekoak izan behar dira, azken honen interesen defentsa zurruna burutu behar dutenak, azken finean. Horrela, Euskal Herri Langileak, Klase Eraikuntza Nazionalaren bitartez, kontraboterean oinarritutako bere zapaltzaileen aurkako nazio askapena garatzen du, esplotatzaileen aurkako egitura iraultzaileak antolatzen dituen bitartean.

Ulertu behar da prozesu iraultzailea langile klaseak botere politikoa eskuratzera bideratutako fasea dela, Euskal estatu indepen-



"Euskal estatu independente eta sozialistarako bidean Euskal Langileri Iraultzailearen egitasmoak jasotzen dituen prozesu iraultzailearen posizio politikoa da **Klase Eraikuntza Nazionala.**"

dente eta sozialista sortzera bidean. Prozesu sozialistak, behin langileriak botere politikoa lortuta, komunismorako bidean sozialismoaren ezartze eta garapenera bidean euskal estatu independente eta sozialistaren eraikuntza prozesuari egiten dio erreferentzia. Hala ere, etorkizuneko prozesu sozialistaren mugariak, prozesu iraultzailean sakondu ahala, horretan garatuz doaz. Hori dela eta, kontrabotereaz ari garenean, prozesu iraultzailearen baitan mugimendu iraultzailearen lorpenak ziurtatu eta lurraldearen kontrol efektiboa bermatu eta, aldi berean, etsaia- ren boterea eta nagusitasuna higitzen duen prozesuaz ari gara, estatu kapitalista eta botere burgesa suntsitzea delarik azken helburua.



"Ulertu behar da **prozesu iraultzailea** langile klaseak botere politikoa eskuratzera bideratutako fasea dela, Euskal estatu independente eta sozialista sortzera bidean. **Prozesu sozialistak**, behin langileriak botere politikoa lortuta, komunismorako bidean sozialismoaren ezartze eta garapenera bidean euskal estatu independente eta sozialistaren eraikuntza prozesuari egiten dio erreferentzia."

Nolanahi ere, argi eduki behar da kontraboterean eraikitako Herri Erakundeak ez direla etorkizuneko euskal estatu independente eta sozialistaren parte, honen instituzioei bide egin behar dieten antolakuntza markoak baizik. Izan ere, honen garapena prozesu sozialistaren fasean eman behar da. Aitzitik, estatu independente eta sozialista Euskal Herriko langile klasearen botere hartzea eta honen klase interespeko proiektu politikoaren gauzapena izan behar denez gero, ezinezkoa da hau estatu burgesa suntsitu gabe eraikitzea; hau da, kontraboterea oinarri duten Herri Erakundeak konfrontaziorako tresna dira. Ez dira sistema kapitalistak dirauen bitartean era paraleloan mantendu eta garatu behar diren espazioak, honekiko kontraerriak diren instituzioak baizik.

Kontraboterearen sorrera eta garapena konfrontazioaren eskutik emandako estatu burgesaren suntsiketarik etorri behar da, prozesu iraultzailearen garapen mailaren isla izan behar delarik. Kontraboterea klabe horretan ez garatzeak edota sistema kapitalista auzitan jarri gabe edota honi aurre egiten ez dioten espazio paraleloak sortzeak eta hauek langile instituzio gisa definitzeak, prozesu iraultzailearen eldarnioa sortzeaz batera, burgesiaren nagusitasuna indartzea besterik lortuko ez duen iruzurra dakarte Euskal Herri Langilearentzat. Horrela, estatu burgesek dirauten bitartean, Herri Erakundeen forma beharrezko kontrabotere forma da, langile klasearen lorpenari eta botereari eutsi ahal izateko.

Laburbilduz, Euskal Langileri Iraultzaileak, Klase Eraikuntza Nazionaleko posizio politikoan oinarrituta, Euskal Herri Langilearen Alternatiba baino haratago doan kontraboterea eratu beharra du Herri Erakundeen bitartez. Horretarako, Euskal Herri Langilearen Alternatibak, Euskal Langileri Iraultzaileak subjektu politikoaren antolakuntzan oinarritutako jardun politikoa burutu beharra dauka, Euskal Herri Langileari begira eta honi zuzenduta. Klase Eraikuntza Nazionaleko posizio politikotik eratorritako dinamika, planteamendu eta Herri Erakundeen forma, momentu bakoitzeko egoeran eta indarrean oinarritutako eztabaiden bitartez definitu beharko du Euskal Herri Langilearen Alternatibak, Euskal Herri Langileak bizi duen errealitateari izaera politikoko alternatibak mahaigaineratze aldera.

NOLA ZAPALTZEN GAITUZTE EMAKUME LANGILEOK?



Gure egunerokotasunean, langile klaseak pairatzen duen esplotazio ekonomikoaz gain, bestelako zapalkuntzak ere ematen direla ikusi dezakegu. Horrela, langile klaseko estratu batzuek zapalkuntza espezifikoak pairatzen dituzte: emakumeak, homosexualak, pertsona arrazializatuak eta beste talde batzuk ere sistema kapitalistaren baitan zapalduak dira, esplotazioa pairatzeaz gain.

ZERGATIK EMATEN DIRA ZAPALKUNTZA DESBERDINAK EKOIZPEN MODU KAPITALISTAN?

Sistemari onuragarriak zaizkiolako, esplotazio ekonomikoan sakontzeko eta burgesiaren etekinak handitzeko aukera ematen baitiote. Horregatik, burgesiak berak elikatu eta indartu egiten ditu zapalkuntza horiek guztiak, bere klase interesak bermatzeko beharrezkoak dituelako.

NOLA GERTATZEN DA EMAKUME LANGILEAREN AUZIAN?

Sistema kapitalistari beharrezkoa zaio emakume langilearen zapalkuntza, honek burutzen dituelako langileriaren berriztapenerako beharrezkoak diren

lan guztiak. Emakume langileak arduratzen dira langile klaseko kideen zaintzaz, sistemak jarduera horiek esleitzen dizkielako: janaria prestatu, arropak garbitu, umeak hezi, adinekoak zaindu, senideen zaintza emozionala bermatu...

Baina sistema kapitalistak ez du emakume langilearen zapalkuntza jarduera birproduktibo hauetara mugatzen: esparru sozialean ere mekanismo desberdinak erabiltzen ditu emakumearen azpiratze egoera mantentzeko. Izan ere, sistemari beharrezkoa zaio emakumearen zapalkuntza justifikatzen eta naturalizatzen duten ideiak eta jarrerak zabaltzea. Hala, ideologia burgesa baliatuta, erreminta eta mekanismo desberdinak abiarazten ditu klase zapaltzaileak emakume langilearen menpeko egoera ziurtatzeko.

GENERO ROLAK

Mekanismo hauen artean genero rolak topatu ditzakegu, esleitutako generoaren arabera jarraitu beharreko arau sozialen multzoa osatzen dutenak. Rol hauek emakume eta gizonengandik espero den papera zehazten dute, eta maskulinitatearekin eta feminitatearekin loturiko imajinario sozial oso

bat osatzen dute. Hala, feminitatearen adierazleak izan ohi dira eskuzabaltasuna, sentiberatasuna edo zaintzaren rola, eta maskulinitatearen ezaugarriak, berriz, lehiakortasuna, adorea edo indarra. Hartara, ideologia burgesak emakume eta gizonei funtzio eta rol jakin batzuk esleitzen dizkie, haien artean osagarriak izango bailiran aurkezten dituenak. Baina osagarritasun horretan oso hierarkia argia antolatzen da, emakumea azpiratze edo menpeko egoeran uzten duena, alegia.

KOSIFIKAZIOA

Burgesiak emakumea desio eta kontsumo objektu modura ere aurkezten du, honen kosifikazioa gauzatuz. Hartara, emakumea gizonen desio eta nahietara egokitu behar den objektutzat hartzen du, gorputz perfektuak eta eredu estetiko zurrnak diseinatuz. Gure egunerokotasunean mezu irreal hauek jasotzen ditugu, izan iragarkietan, hedabideetan edo sare sozialetan, eta horiek ondorio zuzena daukate emakumeengan, sekulako presio estetikoa pairatzen baitugu. Illo beretik, gorputz perfektuaren patroien menpeko onarpen soziala zabaltzen da gizartean, eta hori gutxi balitz, bestelako esparruetan ere eragina dute hauek;

besteak beste, lanpostuak lortzeko orduan edota presio ikaragarri honen ondorio modura ematen dituen elikadura jokabideen nahasmenduetan. Sistema kapitalista, emakumearen azpiratze egoera mantentzeaz gain, etekin ekonomiko handia lortzen ari da estetikarekin lotuta zabaltzen ari den industria guztiarekin: dietak, makillajea, operazioak, eta abarrak burgesiaren poltsikoak loditzen ari dira etengabe.

INDARKERIA MATXISTA

Sistema kapitalistak emakume langilearen zapalkuntza betikotzeko darabilen beste mekanismo-etako bat indarkeria matxista da. Hau gizonen eta emakumeen arteko dominazio harremanetan emakumearen azpiratze egoera mantentzea helburu duen indarkeria mota da, eta bere baitan kokatzen dira eraso matxistak. Hauek kontrolerako mekanismoak dira, emakumeen artean intimidazioa eta beldurra zabaltzea xede dutenak. Erasotxoak forma desberdinak hartzen dituzte: umiliazioak, irainak, jipoiak, akosoa, bortxaketak, erailketak... Baina erreminta berdinen aurpegi desberdinak baino ez dira, denek baitute helburu emakumeen artean beldurra zabaltzea.



UGALKETA GAITASUNAREN GAINEKO KONTROLA

Lan indarra izanik sistema kapitalistan burgesia-
rentzat aberastasuna lortzeko iturri nagusia ho-
nen ugalketa kontrolatzeak berebiziko garrantzia
du klase zapaltzailearentzat. Langileria berriztu
ezean akumulazioa etenda geratuko litzatekeenez
burgesiak emakumeen sexualitatea eta ugalketa-
rako gaitasuna kontrolatzeko ahaleginak egiten
ditu. Horren adibide dira legediaren eta osasun
instituzioen bitartez haurdunaldia eteteko legeak
eta baldintzak, zeintzuk emakumeen ugalketaren
gaineko erabakiak estatuaren esku ustea xede
duten. Era berean, sistemak langile belaunaldi
berriak behar dituenean helburu hori betetzeko
politika erreformistak jartzen ditu martxan,
amatasun baja luzatzea edo diru-laguntza oso
eskasak ematea adibidez, baina betiere sistema
kapitalistaren onuran diseinatutakoak dira hauek.

LANAREN BANAKETA SEXUALA

Azkenik, eremu produktiboan ere baliatzen dira
emakume langilearen menpeko egoera manten-
tzeko mekanismoak. Horretarako, lanaren bana-
keta sexuala baliatzen du burgesiak, sexu-gene-
roan oinarrituta jarduera produktiboen banaketa
sustatuz. Errealitate honen adibide ezin hobe-
a dira lanpostu edo sektore feminizatuak. Horrela,
emakume langileak bete behar duen jarduera
birproduktiboa sostengatzen duen zaintzaile rola
eremu produktibora transferitzen da, bere men-
pektasuna sendotuz. Ez da harritzekoa, beraz,
zaintzarekin, garbiketarekin lotutako edo esteti-
karen industrian lotutako sektoreetan emakumeak
nagusi izatea.

Ez hori bakarrik: aipatu berri dugun lan birpro-
duktiboa, langileriaren zaintza eta erreprodukzioa
bermatzen duen lana, alegia, emakume langileen
lehentasuna izan behar da. Honen ondorioz, gure
jarduera produktiboak oso baldintzatuak daude.
Adibidez, haur edo senide bat zaintzeko eskatzen
diren lanaldi-erredukzioen zein eszedentzien
ehunekorik handiena emakumeek hartzen dute,
eta, ondorioz, oso zaila dute emakume hauek
bikotearekiko independentzia ekonomikoa lortzea.
Lanaldi partzialak betetzeaz gain, sozialki gutxie-
tsiak dauden jarduera profesionalak burutzearen
ondorioz emakume langileak elementu gutxietsiak

bihurtzen dira, eta soldata baxuak kobratzen
dituzte horregatik.



"Sistema kapitalistari
beharrezkoa zaio emakume
langilearen zapalkuntza,
honek burutzen dituelako
langileriaren
berriztapenerako
beharrezkoak diren lan
guztiak."

Gauzak horrela, burgesia erreforma politiko des-
berdinen bitartez, emakumearen zapalkuntza
desagertuko den kapitalismo atsegin baten
irudikapena zabaltzen saiatzen da. Hala ere,
erreforma hauek antzuak suertatzen dira, euren
izaera partziala dela eta sistema zalantzan jartzen
ez duten unetik. Horregatik, sexu-genero zapal-
kuntzak bere ezaugarri espezifikoak kontuan
hartuko dituen erantzun propioa behar badu ere,
gainerako zapalkuntzen aurkako borrokarekin
elkarlotuta eman behar da. Alta, burgesia
sostengatu eta elikatzen duten zapalkuntzak ezin
ditugu era isolatuan ulertu. Gure gizartean ematen
den zapalkuntza bakoitzak bere ezaugarri
propioak baditu ere, guztiek dute erro bera:
sistema kapitalista, hau baita zapalkuntza hauek
indartzen eta bultzatzen dituen bere onurarako.
Hartara, emakume langilearen zapalkuntzarekin
bukatzeko bidea argia da: sistema kapitalistarekin
bukatzea, alegia. Izan ere, bakarrik orduan emango
dira zapalkuntza hau zein besteak gairatzeko
baldintzak, bai eta genero eraikuntzarekin buka-
tzeko baldintzak ere. Azken finean, kapitalis-
moaren baitan ez dago esplotatu eta zapalduen
egoera hobetzerik, hau irteerarik gabeko labirintoa
baita.



MARTXOAK 3, GASTEIZKO TESTUINGURUA ETA GREBAREN ESPERIENTZIA

Martxoaren 3a Euskal Herrian eman den langile mugimenduaren borroka ezagunetarikoa bat da. Hilabeteetan zehar luzatu zen prozesua lantegietatik haratago hedatu zen, langile klasearen sektore desberdinen arteko elkarlana eman zelarik. Data honen inguruan, Gasteizen urtero kaleak aldarriekin eta memoriaren inguruko irakurketekin betetzen dira, egun horretako sarraskia salatuz eta justizia eskatuz.

Baina memoria ez da soilik oroimenera eta erreparaziora bideratutako tresna, analisirako eta irakaspenerako tresna ere bada. Ezin dugu Martxoaren 3ko greban eman zen errepresioa kasu isolatu bat bezala ulertu, egiturazko izaera duen erantzuna izan baitzen; hau da, langile antolakuntzari aurre egiteko emandako erantzuna izan zen, estatu mailan eskarmentu izatearen helburua zuena, terrorea eta muturreko biolentzia baliatuz garaiko botere politiko eta ekonomikoen egonkortasuna defendatzeko asmoarekin.

Beraz, 1976ko gertakariak aztertzeke orduan, ez gara soilik Martxoaren 3ko greba egunean eman zen sarraskira mugatu behar. Irakaspenak atera

nahi baditugu, garaiko testuingurua aztertu behar dugu, bertan bizi zuten problematika ulertuz eta gaur egun ematen den errealitatearekin loturak bilatuz. Izan ere, problematika aldatu den arren, langile klasearen zapalkuntza eta esplotazioa ez dira gainditu, eta ezinbestekoa zaigu iraganeko antolakuntza eta borroka esperientzietatik ikas-tea.

EGOEREN ALDERAKETA 1976TIK 2023RA

Egun bizi dugun egoerak 1976koarekin antzekotasun handiak ditu: soldata izoztuak, inflazio altua eta horrek dakarren bizitzaren garestitzea, lan baldintzen "kaskartzea"... Hala ere, hori ulertzeko, bi garaien arteko alderaketa egin beharra dago, demografia eta egoera ekonomikoa aztertuz.

1976an Gasteizen 2. sektorea, lantegi handiak eta tailer txikiak ziren nagusi. Datuen arabera, 1975ean langileriaren % 60 inguruk sektore horretan lan egiten zuen. Bestalde, hiriaren hazkunde demografikoa 60. eta 70. hamarkadetan zehar emandako etorkin fluxuaren ondorioa izan

zen. Horren adierazle da Gasteiz 1966an 110.869 biztanle izatetik 1976an 174.741 biztanle izatera igaro izana. Biztanleria horren % 47 Arabatik kanpo jaiotakoa zen.

Hamarkada horretan zehar etorritako langile gehienak lantegien inguruan eraikitako auzo berrietan kokaturik zeuden; besteak beste, Adurtza, Zaramaga, Arana eta Ariznabarra. Langileak bertan bizitzeko eta gainerako auzoen arteko harremana zailtzeko pentsaturik zeuden auzo horiek. Aitzitik, eredu horrek auzoko langileen arteko harremanak erraztu zituen, auzo mailako antolakuntza eredu desberdinei esker jatorri desberdineko langileen arteko loturak indartuz.

Gaur egungo egoerari erreparatuta, hiriak hazten jarraitu du. Ikusi besterik ez dago iaz, 2022an, 248.106 biztanle zituela Gasteizek. Demografiaren azterketa egiten badugu, argi ikusten da espainiar estatutik kanpoko etorkinen kopurua nabarmenki handitu dela: guztira biztanleriaren % 15 inguru izatera igaro dira. Gainera, azken hiru hamarkadetan auzo berriak eratu dira. Egun Salburua, Zabalzana eta Lakua dira hiriko auzorik jendetsuenak, eta egoera horrek testuinguru sozialaren aldaketak eragin ditu.

Gauzak horrela, kultura desberdinetako langileen arteko kohesioa lantzearen beharra agerikoa da. Bide horretan, auzo mailako antolakuntza ereduak berreskuratu behar ditugu, gizartean ematen den individualismoa gaindituz eta klase batasuna sustatuz.

Horrez gain, ekonomian eta ekoizpen antolaketaren aldaketa ere aintzakotzat hartu behar da. Bigarren sektoretik zerbitzuen sektorerantzko trantsizioa eman da hirian. Datuen arabera, 2021. urtean Barne Produktu Gordinaren % 70 zerbitzuen sektoreari lotuta zegoen. Egoera horrek eragin



handia izan du langile klasearen banaketan. Lantegiak eta auzo langileak elkargune puntua ziren lehen. Egungo auzo ereduak eta



“Baina memoria ez da
soilik oroimenera eta
erreparaziora bideratutako
tresna, analisirako eta
irakaspenerako tresna ere
bada”

zerbitzu sektorearen nagusitasunak, ordea, lehen egune-rokotasunean ematen ziren langileen arteko harreman naturalak desagerrarazi ditu. Gaur egun bizi dugun langileen atomizazioan eragin du horrek, eta lanean antolatzeko zailtasunak handitu.

1976KO GREBA PROZESUA

1970ean eta 1972an, Esmaltaciones Arregi eta Michelin enpresa handietan langileak grebara joan ziren, borrokatzeko hautua eginez. Esmaltacionesi dagokionez, Adurtzan auzo mailan elkartasuna piztu zuen, eta bertako langileriak mobilizazioetan parte hartu zuen. Michelinen kasuan, 3.500 langilek egin zuten greba.

Esperientzia horiek eta Frankismoaren aurka espainiar estatuko hainbat puntutan ematen ari ziren langile borrokak abiapuntu gisa hartuta, Sindikatu Bertikalari boikota egiten hasi ziren Gasteizko langileak hauteskunde sindikaletan. Horretarako, haien asanblada propioak sortu zituzten, eta hauek “Comisiones representativas” deituriko koordinazio markoaren bitartez 10.000 langiletik gorako masa ordezkatzera iritsi ziren.



1976ko urtarrilaren 9an Forjas Alavesas eta Mevosako langileek greba mugagabea abiarazi zuten. Guztira 3.000 langiletik gorako plantillak kalera irtetea Martxoak 3ra eramango zuen prozesuaren hasiera bezala har daiteke. Une horretatik aurrera, lantegien barruan ematen ziren borroka eta aldarrikapenak kalera eramaten hasi ziren lantegi desberdinetako langileak, konfrontaziorako eta antolakuntzarako deia hiri osora eta Arabako beste hainbat eskualdetara hedatuz.

Hauk ziren haiek luzatu zituzten **aldarrikapenak**:

- Langile guztientzat **6.000 pezetatako soldata igoera** eta patronalak eskaintzen zuen portzentajezko soldata igoera ukatzea. Izan ere, horrek soldaten arteko arrakala handitu besterik ez zuen egiten, eta soilik soldata handia zutenei egiten zien mesede, azken horiek nagusiki zuzendaritza-batzordeei lotuta zeudenak ziren bitartean.
- Asteko **40 orduko lan jarduna**, oporretarako hila bate bat eta zubiak libre izatea. Horrez gain, bazkaltzeko ordu erdiko tartea ere aldarrikatzen zuten.
- **Erretiroa 60 urterekin hartzea**, soldata osoarekin eta jardunean zeuden langileen soldaten igoeraren menpe.
- **Gaixotasunaren edo istripuaren kasuan**, soldataren % 100 kobratzea.

Martxoaren 3ko greba orokorraren aurretik, beste 2 greba deialdi egin ziren: otsailaren 16an eta 23an. Horren guztiaren aurrean, patronalak eta frankismoak errepresioaren intentsitatea handituz erantzun zuten, langile mugimenduaren indarra suntsitzeko asmoarekin.

Hala ere, prozesuan zehar langile elkartasuna izan zen nagusi, eta errepresioaren aurrean kalera-tutako langileen berronarpenera eta atxilotuen askatasuna gehitu zitzaizkien langileen aurreko aldarrikapenei. Halaber, borroka sostengatzeko, erresistentzia kutxa eta elikagaien bankua antolatu zituzten. Prozesuak aurrera egin ahala, emakumeak ere borrokara batu ziren, euren antolakuntza forma propioak garatuz eta grebaren aldeko mobilizazioak burutuz. Ikasleek ere geldialdiak eginez aurrerago eman ziren greba orokorretan parte hartu zuten.

Testuinguru horretan, Martxoaren 3a heldu zen, greba orokorrerako deialdia zegoen eguna, alegia. Data horretan, "Comisiones representativas"-ek emandako datuen arabera, 70 enpresa inguruk parte hartu zuten greban, eta jardunean zegoen langileen % 80 mobilizatu zen: 50.000 langile inguru. Errepresio bortitza pairatu zuten langileek, ordea; egun hartan indar polizialek 5 langile erail zituzten eta 200 langiletik gora balaz zauritu zituzten. Espainiar estatuan elkartasun mobilizazioak egin zituzten hurrengo egunetan, eta horietan ere errepresio basatia pairatu zuten: beste 2 langile gehiago hil zituzten, bata Basaurin eta bestea Tarragonan. Bestalde, aipatu beharrekoa da Italian ezker iraultzaileak eta ikasle mugimenduak elkartasun mobilizazioa antolatu zutela espainiar enbaxadan. Bertan ere poliziak 2 pertsona balaz zauritu zituen, eta beste bat akatu.

Horrek guztiak borroka prozesuaren amaiera ekarri zuen. Aldarrikapenetatik soldata igoera eta 40 orduko lan jarduna onartu zituzten. Erretiro



"Kultura desberdinetako langileen arteko kohesioa lantzearen beharra agerikoa da. Bide horretan, auzo mailako antolakuntza ereduak berreskuratu behar ditugu, gizartean ematen den indibidualismoa gaindituz eta klase batasuna sustatuz."

adinaren eta gaixotasun edo istripu kasuetako aldarrikapenak, aldiz, atzera bota zituen espainiar gobernuak. Gainera, langile asanbladetan parte hartu zuten ordezkariak jazarpen ikaragarria pairatu zuten. Horietako asko atxilotuak izan ziren edo ihes egin behar izan zuten Galiziara, Madrilera edota Valentziara, Alderdi komunistak eskaintako elkartasun sarearen babesa jasota.

ONDORIOAK

Martxoaren 3ko prozesua langile antolakuntzaren potentzialaren adibide argia da. Gasteizko langileek beren interesak klase perspektibatik jorratuta, batasuna oinarri, galdegindako aldarrikapenak erdietsi zituztenen azkenean. Hala ere, hobekuntza material horien lorpena langile borrokaren bitartez gauzatu zen. Izan ere, hori ekiditeko deman ziharduten burgesia eta estatuaren bortizkeriari aurre egin behar izan zieten, horren ondorioak pairatzearekin batera. Hori horrela, Martxoaren 3ak, langileriaren eta burgesiaren interes kontrajarriak agerian uzteaz gain, langile klasearen aurrerapausoak eta garaipena konfrontazioaren bitartez bakarrik eman daitezkeela erakusten du.

Greba egunetako borrokaz eta mobilizazioez haratago, prozesu horretan elkartasun sareak eta antolakuntza forma desberdinak hedatu ziren, esperientziak trukatzeari eta koordinazio zein sostengurako bideak ireki zituztenak.

Azpimarratzekoa da jatorri desberdineko langileen artean eman zen kohesio eta elkartasuna ere. Gasteizen eman den aldaketa demografikoa eta ekonomikoa, Euskal Herri osoan zehar maila desberdinean eman den prozesua da, eta, iraganean ikusi zen bezala, Euskal Herri Langilea jatorriaz haratago doan termino politiko gisa ulertu behar dugu; baldintza materialetan oinarritutako eta klase izaera duen kontzeptua, alegia. Langileriaren mugimendu politikoa hauspotu, eta borroka bateratuaren eta koordinatuaren bitartez langileon batasunaren oinarri izan behar den terminoa da, zapalkuntzaren zein esplotazioaren aurka antolatzen lagundu behar duena.

1976an antolakuntza eta mobilizazioa hobekuntzak lortzeko ezinbesteko tresna izan ziren, langile antolakuntzarako baldintzak sortzen edota ernaltzen hasiak zirenak hauspotzen lagundu zutelarik.



Gaur egun, masa borrokarako gaitasuna berdina ez izan arren, kalean konfrontazioa sustatzen jarraitu behar dugu, kapitalismoaren normaltasuna higatzen klaserik gabeko gizartea posible dela aldarrikatuz.

Hala ere, agerikoa da borroka horiek estrategia falta zutela. Izan ere, Gasteiz mailako antolakuntza eredu indartsu bat sortu arren, ez zuten lortu haratago heltzea. Borroka espontaneoek mugak dira horiek. Borroka horiek etsaiaren partetik jasotako eraso edo egoera konkretuei erantzuteko pizten badira ere, ez dute zapalkuntza eta klase esplotazioa gainditzeko gaitasunik, aldaketa kuantitatiboetan neurtzen baitute euren arrakasta aldaketa kualitatiboetan beharrean. Beraz, prozesu iraultzailea garatu ahal izateko, ezinbestekoa dugu estrategia politiko baten pean burutzea borroka sektorial desberdinen arteko koordinazioa.

Azken finean, errealitate materialaren analisia, teoria politikoaren eraikuntza, borroka ideologikoaren sustapena, antolakuntza eredu eraginkorren garapena eta estrategia politiko zuzen baten lanketa dira mugimendu iraultzailearen egin beharrrak, eta horretan tematu behar da Euskal Herri Langilea, etorkizun hobea eraiki nahi baldin badu.



" Egia da blokeen arteko gatazkaren parametroak asko aldatu direla ordutik hona. Garrantzitsuena: Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) desagertu egin da, eta hura osatzen zuten herrialdeak, Errusia tarteko, kapitalistak dira. Hala ere, AEBren inperialismoaren ondorioak dira bai Gerra Hotza, baita munduan zehar egun piztuta dauden zenbait gatazka ere; Ukrainako eta Siriako gerrak, besteak beste. "

ESTATU BATUETAKO DOKTRINA GEOPOLITIKOAK GERRA HOTZAREN GARAIAN

Errusiaren eta Amerikako Estatu Batuen (AEB) arteko enfrontamenduak gora egin duen honetan, komenigarria da bloke kapitalistaren eta sozialistaren arteko norgehiagokaren gako batzuk gogoratzea. Egia da blokeen arteko gatazkaren parametroak asko aldatu direla ordutik hona. Garrantzitsuena: Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) desagertu egin da, eta hura osatzen zuten herrialdeak, Errusia tarteko, kapitalistak dira. Hala ere, AEBren inperialismoaren ondorioak dira bai Gerra Hotza, baita munduan zehar egun piztuta dauden zenbait gatazka ere; Ukrainako eta Siriako gerrak, besteak beste. Funtsen, mundua AEBren interesen arabera menderatzeko asmoa dago herrialde honen gobernu guztien atzean. Bide horretan, AEBko gobernuak doktrina geopolitiko ezberdinak jarri dituzte abian asmo hori betetzeko. Bada, Bigarren Mundu Gerratik hona, AEBko presidentek izan duten asmo hori aurrera eramateko modua ikusiko dugu, batez ere, Estatu etsaiekiko izandako jarrera.

GERRA HOTZAREN HASIERA ETA TRUMAN DOKTRINA (1945-1953)

Bigarren Mundu Gerran, Franklin D. Roosevelt zen AEBko presidentea. SESBen aurrean elkarlana sustatu zuen, naziak eta japoniarrak menderatu eta gerrarekin bukatzeko. Horren harira, SESBi kontzesio gehiegi egin izana leporatu izan diote antikomunista askok. Dena dela, gerra amaitu baino hilabete lehenago hil zen, 1945eko apirilean. Ostean, Harry S. Truman izendatu zuten AEBko presidente. Hari egokitu zitzaion gerraren amaiera AEBko burgesiaren interesen alde kudeatzea. Gerra bukatuta, AEB eta SESB munduko potentzia bihurtu ziren. Bi potentzien arteko tentsioak Bigarren Mundu Gerra aurretik zetozen arren, hau bukatuta SESBen indarra mehatxu handia bilakatu zen AEBren asmo inperialistentzat.

Naziak garaitzean, SESB Europako ekialdeko herrialde gehienak kontrolatzera pasatu zen.

Beste aldetik, sozialismoa Asian hedatzen hasi zen, Txinako gerra zibila komunistek irabazi zutelarik 1949an. Gauzak horrela, nazioarteko harremanak, munduko bi polotan zatitzeko joera izan zuen, herrialde gehienak batan edo bestean lerrokatzen zirelarik. Alemania bitan banatuta geratu zen: batetik, Alemaniako Errepublika Federala, kapitalista, eta bestetik, Alemaniako Errepublika Demokratikoa, sozialista.

Testuinguru hartan, prozesu iraultzaileak martxan jartzeko hainbat saiakera egon ziren, Turkian eta Grezian, adibidez, eta Europako mendebaldeko beste herrialdeetan komunismoak hedapen zabala zuen gizartean, Italian eta Frantzian, esaterako. Gauzak horrela, presidenteak "Truman" doktrina izeneko doktrina geopolitikoak jarri zuen martxan 1947an, komunismoaren mundu mailako hedapena gelditzeko. Doktrina horren arabera, AEBk "herri libreak", hau da, beraientzat "demokratikotzat" jotzen zituztenak babestu behar zituzten, SESBk gutxiengo armatuen bitartez "menderatu" nahi zituztelako. Beldur nagusia prozesu iraultzaileen artean egon zitekeen domino efektua zen, hots, herrialde batean sozialismoa ezarrita, inguruko herrialdeetan prozesu iraultzaile gehiago abian jartzeko arriskua. Hori saihesteko, doktri-



naren arabera, Europako estatu kapitalistak ekonomikoki eta militarki lagundu behar zituzten, oso ahul baitzeuden gerraren ondorioz. Horren adibide dira Marshall plana eta Grezian zein Turkian eraikitako base militarrek.

Truman doktrinaren jarraipen gisa, nazioarteko aliantza militarrek eratzea ahalbidetuta NATOren sorrerari bide eman zion "Vandenberg" izeneko ebazpena atera zuen AEBko parlamentuak 1948-an.

EISENHOWER ETA ERREPRESALIA MASIBOAREN DOKTRINA (1953-1961)

Dwight D. Eisenhower 1953an izendatu zuten AEBko presidente. Honek pauso bat aurrera eman zuen komunismoaren kontra. Izan ere, "errepresalia masiboaren" doktrina jarri zuen martxan,



"Dulles doktrina" bezala ere ezagutzen dena. Doktrina hau oso sinplea eta zurrana zen: SESBk NATOk edozein herrialderi eraso eginez gero, ahalik eta modu bortitzenean eta azkarrenean erantzungo zioten. Modu horretan, edozein kolpe emateko asmoa kentzen zioten etsaiari. Hau da, SESBen edozein probokaziori indar guztiekin erantzuteko mehatxua egitean oinarritzen zen, edozein kolpe emateko asmoak burutik kenduz. Doktrina horren ondorio nagusia arma nuklearren garapena izan zen, eraso baten aurrean ahalik eta erantzun bortitzena ziurtatzeko. 1950eko hamarkadan, Ekialde Hurbilak zenbait gatazka eta iraultza saiakera bizi zituen. Horien artean garrantzitsuenak: Suezeko kanaleko eta Libanoko krisiak. Eskualdean egonkortasuna lortzeko eta iraultza saiakerak ekiditeko helburuarekin, "Eisenhower doktrina" jarraitu zuten, eskualde hartako herrialdeak militarki eta ekonomikoki laguntzeko.



"Funtsean, mundua AEBren
interesen arabera mende-ratzeko
asmoa dago herrialde honen
gobernu guztien atzean."

KENNEDY ETA MCNAMARA DOKTRINAK (1961-1963)

John Fitzgerald Kennedyren presidentetzak oso gutxi iraun zuen, 1961ean hasi arren 1963an erail baitzuten. Honela esan zuen bere lehen diskurtsoan: "Nazio guztiek jakin dezatela, onerako zein txarrerako, edozein prezio ordainduko dugula, edozein karga jasango dugula, edozein zigor jasango dugula, edozein kide babestuko dugula, edozein etsairen aurka egingo dugula, askatasunaren biziraupena eta arrakasta ziurtatzeko".

Hartara, edozein herrialderen "askatasuna" babesten laguntzeko prestutasun osoa adierazi zuen Kennedyren doktrinak. Garai horretan, prozesu iraultzaileak Latinoamerikan aurrera eramaten ari ziren, Kuban esaterako. Horregatik, eskualde hartako herrialde kapitalistekiko konpromisoan

sakondu egin zuen. Horren adierazle izan zen herrialde horiekin egindako "Aurrerapenerako aliantza", laguntza ekonomikora bideratua.

Geroago, 1962an, "McNamara doktrina" bereganatu zuen Kennedyk, Dulles doktrinaren ordeztu. Garaiko Defentsarako Estatu Idazkaria zen Robert McNamarak errepresalia masiboaren doktrina alboratu nahi zuen. Izan ere, garai harretarako SESBk H bonba zeukan, eta 1957an lehen Sputnik satelitea bidali zuen espaziora. Horrek munduko edozein tokitan jaurtigairen bat botatzeko gai zirela erakusten zuen, baita AEBren lurraldeen barruan ere. Harrezkero, balizko erantzun masiboak sinesgarritasuna galdu zuen, argi baitzegoen AEB ez zela ausartuko euren lurraldea arriskuan jartzera.

Urte haietan, Alemaniako eta Berlingo estatusak ebatzi gabe zeuden, eta SESBk eta AEBk ez zuten akordiorik lortzen. Orduan, estatu sozialistak ultimatum bat bota zuen, Mendebaldeko armadak Berlingo mendebaldetik ateratzea exijituz. Gatazka horren ondorioz eraiki zuten Berlingo harresia. Testuinguru hartan, Kuban misil nuklearrentzako baseak eraikitzen ari zirela ohartu zen AEB, eta gerra nuklearra eztanda egiteko zorian egon zen.

Gerra nuklearraren arriskua erreal bihurtu zen, eta Dulles doktrinak agintzen zuen erantzun bortitza ez zen egoera hartara egokitzen. Horregatik, McNamara doktrinak edo "erantzuna gradualaren doktrinak" gerra nuklear apokaliptikoa saihestea zuen helburu. Armategi nuklear osoa kolpe batez baliatzea ekidin behar zuten, erantzun gradualago eta egokituago bat emanaz. Europako herrialde kapitalistek AEBren babesaren gutxitze moduan interpretatu zuten doktrina hura. Aldiz, SESBntzat, horrek adierazten zuen AEBk bazeudela arma nuklearrak erabiltzeko prest, eta, paradoxikoki, armamentu nuklearra lortzeko lehia berpiztu egin zuen doktrina hark.

JOHNSON DOKTRINA (1963-1969)

Lyndon B. Johnson 1963an bilakatu zen presidente, eta 1965ean jarri zuen bere doktrina indarrean, AEBk Errepublika Dominikarreko gerra zibilean esku hartu ostean. Doktrina horrek Eisenhower eta Kennedyren doktrinak berrindar-

tzen zituen, honako hau ezarri: mendebaldeko hemisferioan “diktadura komunista” ezartzeko iraultza saiakerak ez ziren auzi diplomatuko lokaltzat hartuko, eta AEBk horien aurka aktiboki jardun behar zuen.

NIXON DOKTRINA (1969-1977)

Richar Nixon presidente izendatu zutenean 1969an, AEB Vietnamgo gerran trabatuta zegoen, garaipen sendorik lortu gabe. Bestalde, ekonomiak txarrera egin zuen. Egoera horrek atzerapauso bat ematera behartu zuen AEB mundu mailako komunismoaren kontrako borrokan. Gauzak horrela, Nixon doktrinak estatu aliatuen esku uzten zuen euren segurtasuna, baina “euritako nuklearra” eskaini zezaketen, herrialde batek hala eskatuko balu. Halaber, herrialderen bat erasotua izango balitz, AEBk laguntza finantzarioa eta materiala eskainiko zien, baina ez zuten esku hartze militar zuzenik izango gatazka horretan. Beraz, jaitsi egin zen AEBren inplikazioa beste herrialdeetako gatazketan, zentzu militarrean behintzat.

CARTER DOKTRINA (1977-1981)

Jimmy Carter presidenteak tentsio geopolitikoa berriz areagotu zuen, Trumanen eta Eisenhowerren doktrinak berrartuz. Alegia, 1980ko diskurtso batean adierazi zuen AEBk Pertsiaiko Golkoan zituen interesak indar militarren

bitartez babestuko zituztela, eskualde hartan kontrola lortzeko SESBk egin zezakeen edozein mugimenduri erantzunez. Kontuan hartu behar da 1979an SESB Afganistango gerran sartu zela, eta, ondorioz, Ekialde Hurbilean sartzeko urratsak emanak zituela. Beraz, Carterren diskurtsoa asmo horiek atzera botatzeko mehatxu moduan ulertu behar da.

KIRKPATRICK ETA WEINBERGER DOKTRINAK (1981-1989)

Ronald Reagan presidente zela, 1981ean, Nazio Batuen Erakundean AEBko enbaxadore zen Jeane Kirkpatrickek Hirugarren Munduko diktadurei emandako sostengua justifikatu zuen, diktadura autoritarioen eta totalitarioen arteko bereizketa eginez. Haren esanetan, SESBn alde lerrotutako “diktadurak” totalitarioak ziren; aldiz, AEBren aldekoak autoritarioak. Labur esanda, azken hauek herritarren portaera soilik kontrolatzen zuten, eta haien ekintzen araberako zigorrak ezartzen zituzten. Erregimen totalitarioek, berriz, herritarren pentsamendua kontrolatzeko joera zuten, eta ia ezinezko bihurtzen zen erregimen demokratiko bateranzko trantsizioa egitea. Gainera, herrialde totalitarioak egonkorragotzat hartzen zituen Kirkpatrickek, eta, ondorioz, euren inguruko herrialdeetan eragiteko joera nabarmenagoa zuten. Hori zela eta, SESBekin lerrokatuta ez zeuden herrialdeak errazagoak ziren demokratizatzeke. Doktrina honen ondorio





nabarmenena izan zen diktadura antikomunistei emandako babes, hala nola, Argentina (1982), Guatemala (1985) eta Filipinak (1986). Bestalde, herrialde komunistetan balio demokratikoekin zerikusi gutxi zuten talde armatuak finantzatu zituzten Afganistanen, Angolan eta Nikaraguan, sozialismotik hurbil kokatzen ziren Estatuak zirelako.

1985ean Reaganek doktrina hau berretsi zuen, zera adieraziz: "Ez dugu hautsi behar kontinente guztietan, Afganistandik Nikaraguara [...], bizitza arriskuan jartzen dutenekin lotzen gaituen konfiantza, sobietarren erasoari erantzuteko eta gure jaiotzatik ditugun eskubideak errotzeko. Askatasunaren aldeko borrokalariei emandako babes defentsa legítimoan oinarritzen baita."

Reaganek presidentetzan jarraitzen zuen, haren Defentsa Idazkari Caspar Weinbergerrek AEBk atzerriko gatazka batean esku hartzeko baldintzak zerrendatu zituen 1984an. Weinbergerren doktrina formulatzeko arrazoia bi eztabaidek piztu zuten: alde batetik, Vietnamgo porrotaren arrazoiengatik, eta beste aldetik, Libanoko gerra zibilean esku hartzearen ingurukoak. Izan ere, 1983an, 241 militar estatubatuar hil ziren, Beiruten gertatutako bonbardaketen ondorioz. Gauzak horrela, Weinberger doktrinak honako **sei baldintza** ezarri zituen AEBren esku hartze militarerako:

1. AEBk ez du indar militarrik mobilizatu behar, bere interes nazionalak edo aliatuenak arriskuan ez dauden bitartean.

2. Indar militar estatubatuarrek borrokatzen badute, erreserbak baliatu gabe eta irabazteko intentzio argiekin egin behar dute. Bestela, ez dira militarki engaiatu behar.

3. AEBko indarrek argi definitutako helburu politiko eta militarrekin eta helburu horiek lortzeko gaitasunarekin soilik borrokatu behar dute.

4. Helburuen eta engaiatutako indarren tamaina eta osaeraren arteko erlazioa etengabe berrebalatu eta egokitu behar da, beharrezkoa bada.

5. Indar estatubatuarrek ez dute inongo gerran parte hartu behar, Kongresuaren eta iritziz publikoaren babes jasoko dutela bermatzen ez badute.

6. AEBko tropen esku hartzea azken aukera moduan baino ez da baliatu behar.

Bistan da etorkizuneko porrot militarrek saihesteko hausnarketaren ondorio direla baldintza horiek, balizko esku hartze militarrei irizpide zorrotzak ezarri.

Testuinguru geopolitiko horretan, AEBk mundu mailako komunismoaren kontrako borrokan zuen jarrera ikusita, pentsaezina dirudi komunismoarekin zerikusia zuen ezer AEBko muga barruan antolatzea.

GERRA HOTZAREN OSTEKO DOKTRINAK AEBN

1989an, SESBn gainbehera suertatu zen, eta AEBk Gerra Hotza irabazitzat eman zen. Hala ere, tentsio geopolitikoak ez ziren hor amaitu. Golkoko Gerraren testuinguruan, adibidez, Colin Powell jeneral estatubatuarrek Weinbergerren doktrinako irizpideak garatu zituen AEBren balizko esku hartze militarra erabakitzeko. Powellek bai edo ez erantzun beharreko galderak formulatu zituen, gerra batean sartzea erabakitzeko:

- 1 Bizi-interesak daude jokoan?
- 2 Helburu lorgarriak definitu dira?
- 3 Objektiboki aztertu al dira arriskuak eta kostuak?
- 4 Agortu al dira indarkeriarik gabeko beste aukera guztiak?
- 5 Bada irteera-estrategiarik tratatzea saihesteko?
- 6 Esku-hartze baten ondorioak ebaluatu dira?
- 7 AEBko herriak ekimena babesten du?
- 8 Nazioarteko komunitatearen benetako babesa dugu?

Horrez gain, Powellek baliabide eta ahalmen guztiak erabili behar zirela adierazi zuen, etsaia ito eta AEBren galerak minimizatzeke.

Gerora, Bill Clintonek doktrina ez ofizial bat jarri zuen martxan 1993 eta 2001 urteen bitartean. Hark hedatzearen nozioa aplikatu zuen, Gerra Hotzean indarrean zegoen eustearen orde. Horrek esan nahi zuen, Errusia ahulduta, AEBk egoera aprobetxatu behar zuela bere eragina mundu osora hedatzeko, eta AEB "munduko jendarme" bihurtzeko.

George W. Bush presidentearen gerra prebentiboaren ideia jartzen zuen mahai gainean, AEBko gorentasun militarra mundu mailan mantentze aldera. Horren xedea, suntsipen masiborako armen hedapena saihestea eta giza eskubideen eta askatasunen defentsa egitea omen zen, batez ere, Ekialde Hurbilean. Gerra "prebentiboaren" aitzakia nagusia 2001eko irailaren 11ko gertakariak izan ziren, eta ondorio nagusia Irakeko inbasioa.

Ez dago argi zein izan zen Barack Obama presidentearen doktrina geopolitikoa, ez baitzuen guztiz definituta utzi. Hala ere, 2014ko mitin batean zera adierazi zuen: "AEBk indar militarra erabiliko du, alde bakartasunez, beharrezkoa bada, gure berebiziko interesek hala eskatzen dutenean", baina zeharkako mehatxueterako edo krisi humanitarioetarako, "aliatuak mobilizatu behar ditugu, neurri kolektiboak har ditzaten".

2015ean egin zitzaion elkarriketa batean, zera erantzun zuen: "Obamaren doktrina bati buruz galdetu duzue, doktrina zera da: konprometituko garela, baina gure gaitasun guztiak gordeko ditugula". Oro har, nahiko doktrina anbigua izan



zen Obamarena: esku hartzea bai, baina aliatuekin batera, eta indarrak ondo gordeta. Horrek ez du esan nahi beste herrialdeetan jarrera bakezalea izan zuenik, horren adierazle gditugu Ekialde Hurbilean piztutako gerra zibilak, Sirian eta Libian, esaterako.

Ez dago Donald Trump presidentearen doktrina formalik ere ez, baina haren nazioarteko politika "America first" leloarekin laburbildu dezakegu. Horren harira, lehentasun politikoak AEBren barruan kokatu zituen, nazio interesak nazioarteko "konpromisoen" gainetik jarritz. Horren adibide gisa, garrantzi handiagoa eman zion Hego Amerikatik zetorren immigrazioa gelditzeari edo AEBko barne segurtasuna indartzeari, esaterako. Era berean, "gerra amaiezinetatik" irteteko urratsak eman zituen (Afganistangoa, adibidez), baina Txinarekiko lehia hauspotu egin zuen. Hots, AEBk ordura arte izan zuen nazioarteko politika guztia hankaz gora jarri zuen Trumpek bere presidentetzan.

Joe Biden presidentea Trumpen aurreko nazioarteko politikara bueltatzen ahalegindu da, hankaz gora gelditu ziren zenbait aliantza (Europako herrialdeekin gehienbat) eta AEBren mundu mailako lidergoa berreskuratzen saiatuz. Horrek nazioarteko politika aktiboagoa izatea ekarri du, teoriarik herrialdeen arteko "elkarlana sustatuz", teoriarik. Hala ere, bere nazioarteko politikek hainbat kritika jaso dituzte, eta ez dute balio izan gatazkak saihesteko, Ukrainako gerran ikusi ahal izan dugun moduan. Hemen ere ez dago argi nola ezaugarritu beharko litzatekeen Bidenen administrazioaren doktrina geopolitikoa, esan duenaren eta lortzen ari denaren arteko aldea oso handia baita. Ikusteke dago, esaterako, zertan geratzen den Ukrainako gerran duen inplikazioa.



Estatu Batuetako PCUSArekin mintzatu gara, hauek maila internazionalerako egoeraz egiten duten irakurketa eta Estatu Batuetako mugimendu iraultzailearen eta langile klasearen erre- alitatearen lehenengo hurbilketa bat burutzeko asmoarekin.

Zeintzuk dira Estatu Batuetako Alderdi Komunistaren jatorria eta ibilbidea?

PCUSA 2014an sortu zen, aurretiaz National Council of Communists USA izena zuelarik. Hasiera batean, Gus Hall-en inguruko CPUSAko kideak ginen, Sam Webbs-en lidergo errebisionista kaleratuak izan ginenak. Gutariko asko Staten Island-eko CPUSAren taldeko partaideak ginen, eta "Save the CPUSA" taldearekin batu ginen. Azken hau 2013tik CPUSA berriz ere alderdi marxista-leninista izateko lanean ziharduen jende gaztearen eskutik osatutako taldea zen. Gutariko batzuk, berriz, jatorri hoxhistatik gatoz, alderdi laborista aurrerakoiaren parte izan ginelarik uneren batean.

Zergatik eta nola sortu zen?

Gure alderdia ezkerreko beste alderdi estatubatuarrek bezalakoa ez izateko sortu zen. Izan ere, ezker estatubatuarren ia osotasuna proinperialista, anti-estalinista, antisobietikoa eta ultraezkertierra da. Horregatik ez dugu demokratekin bat egiten, ezta gobernu kanpoko erakunde liberalekin, argi eta garbi

antiinperialistak garelako eta honetaz harro gaudelako.

Estatu Batuetako mugimendu komunistak aldaketa asko ikusi zituen XX. mendean zehar. Mende hasieran, Eugene Debs-en ospea ikusi genuen 1910eko hamarkadan, eta CPUSArena fronte popularrean 30eko eta 40ko hamarkadetan. Garai horretan, arazoa McCarthyismoaz aparte, "New left" zeritzonaren agerpena izan zen. Honek "Old left"en ikuspegi proletarioa mespretxatzen zuen, bere arreta eta indarra klase ertaineko intelektual eta ikasleengana zuzentzen zituelarik.

Gainera, Sobietar Batasunaren erorketatik CPUSA bitan banatu zen, Gus Hall eta Angela Davis-en alde lerratzen zirenen artean. Lehenengoa alderdiaren ildo gogorra babesten zuen ortodoxoa zen; bigarrena, aldiz, Committee of Correspondence for Democracy and Socialism (CCDS) sortuko zituen liberal errebisionista. Azkenean, Gus Hall hil eta Sam Webbatik ordezkaturia izan zen. Hor kokatu behar dugu CPUSAren behin betiko gainbehera eragin zuten aldaketak aurrera eramane zirenean. Laburbilduz, gure alderdia amerikar komunismoaren historia babestu eta benetan honekin bat egiten dugularik sortu zen, Ameriketako gainerako ezkerrengatik erasotua dena eta kontra duena arrazoi ideologikoengatik.

Zein da Estatu Batuetako klase-gatazkaren egoera? Zer markotan antolatzen da langile-mugimendua? Zein ezaugarri bereizten dute Europako errealtateak?

Une honetan, estatubatuar lan-

gile mugimendua hazkuntza zantzuak bizi izaten ari den une arraroa izaten ari da. Horren adibide dira Amazon Labor sindikatua, Railroad Workers United edo existitzen diren sindikatuen barnean lidergo borrokalariagoa galdegiten duen disidentzia. Hala ere, gure langile mugimendua superinstituzionalizatuta dago eta ez dauka "ezkerreko" alternatibarik; ez gutxienez Frantziakoa bezalakoa, adibidez, CGT ezkertiarra duena.

Zein da alderdiaren ezarpen-maila Estatu Batuetan? Zer alde nabaritzen duzu ekialdeko kostaldearen eta mendebaldeko kostaldearen eta landa- eta hiri-eremuen artean?

Gure alderdia era motelean hazten ari da. Baina argitu beharra dago, alderdi boltxebikea garen ez gero, ez dugula hazkuntza azkarra bilatzen. Gauzak horrela, ekialdeko kosta aktiboagoa eta bateragoa da gure mendebaldeko kosta baino, nahiz eta azken honek oso aktiboa izaten jarraitzen duen. Gauzak horrela, gure taldeak PSL eta bestelako antolakunde ezkertiarrek baino kide gehiago ditu landa eremuan, hauek unibertsitateetako kanpusetan eta hirigune liberaletan zentratzen baitira.

Zein da estrategia une honetan? Eta zer jarduera-eremu ditu?

Une honetan, gerraren aurkako lidergotza geureganatzen saiatzen ari gara, Ukrainiaren inguruko herri sentimendua sentimendu iraultzaile bilakatzeko. Hori lortzeko, Rage Against the War Machine deritzon koalizioa zuzentzen ari gara, protesta

handi gisa hasi zena eta une honetan izaera globaleko koalizioa bilakatzen ari dena.

Zer irakurketa egiten duzue tes-tuinguru internazionalaz?

Estatu Batuak, Munduko Foro Ekonomikoa eta Nazioarteko Diru Funtza, BRICS nazio eta hegoalde globalaren aurkako talka ikusten ari gara. NATOko herrialdeak munduko lehen potentzia inperialista bakarrak dira. Hori horrela, Kuba, Errusia, Txina, Ipar Korea, Palestina, Siria, Bielorrusia eta Sahara babesten ditugu. Ukrainiako operazio militar bereziaren ondoren, munduko mugimendu komunistak ordura arteko zatiketarik handiena pairatu du. Hori dela eta, gure alderdiak desadostasun berezia dauka Partido Comunista de Mexicorekin (PCM) eta Greziako Alderdi Komunistarekin (KKE). Izan ere, Txina eta Errusia potentzia inperialistatzat jotzea eta munduko egoera Lehen Mundu Gerrarekiko alderagarria dela esatea okerra dela deritzogu, konkista inperialistaren mundu mailako klase gerran aurkitzen baikara. Nazioarteko mugimendu komunistari dagokionez, Errusiako Langileen Alderdi Komunistak nazioarteko egoeraren inguruan aurkeztutako analisiarekin bat gatoz, honek errusiar operazio militar bereziaren garaipena munduko kapitalismoarentzat porrota izan eta Errusiako alderdi komunisten epe luzeko posizioa indartuko lukeela esaten dutenean.

Zer jarrera duzue Errusiak Ukrainian aurrera eraman duen operazio bereziari dagokionez? Zer dira "Kill list"-ak eta zer esan ahal diguzue horiei buruz?

Gure alderdia Ukrainiako errusiar operazio berezia babesten duen

antolakunde komunista apurrenetarikoa da, talde marxista asko gatazka interinperialista posizioa hartzen ari baitira aplikagarria ez den unean. Guk gure babesa duen inperialismoaren aurkako gatazkatzat hartzen dugu. "Kill list"-a hilketetarako sortutako zerrenda da. Legez gaindiko antolakunde batek akabatu nahi dituen pertsonak jasotzen dituen zerrenda da, bertan gobernu funtzionarioak, ospatsuak eta kazetariak agertzen direlarik.

Zein da arrazaren errealitatea klase ikuspegitik Estatu Batuetan?

Errealitatea proletarioak eta kapitalistak baino ez daudela da. "New left"-ak identitatearen politika baliatu du klase batasuna suntsitzeko, erruduntasuna langile zurien gain kokatuz arraza anitzetako klase kapitalistaren gain ordeztu. Estatu Batuen baitan gure alderdiak onartu eta babesten dituen nazio zapalduak daude, Puerto Ricoko mugimendu independentista kasu, zeinak Estatu Batuetako gainerako ezker bakoitzak baino babes oinarri altuagoa duen. Era berean, izaera separatistako antolakunde panafrikar eta beltzak ere badaude; hala nola, Uhuru Solidarity Movement, African People's Socialist Party eta Black Hammer Party, FBIgatik jazarriak izaten ari direnak, desinformazio elektoralaren eta errusiar finantzazioaren aitzakiapean. Guk erabateko elkartasuna mantentzen dugu FBIren eskutik jazarriak izaten ari diren hauengatik, gertatuak gertatu. Izan ere, errealitatea da zapalduetako nazionalitateak batu beharra dugula, bai borroka demokratikoan, bai klase gatazkan.

Zer jarrera du Gobernu Federalak alderdiarekiko? Nola zapaltzen du? Une honetan, alderdiak badu preso politikorik kartzelan?

Federalak eskura izan dituzten baliabide guztiekin eraso gaituzte, hedabideen bitarteko difamazio eta barne-sabotaiei bitartez, nagusiki. Adibidez, gure webgunea sarritan erasotua izan da, bortxatzaile eta pedofiloei sostengu emateaz akusatu gaituztelarik. Garbi eduki behar da hau gobernu federala atzerriko bere agendarekin bat ez datozen taldeen aurka gogor aritzen delako gertatzen dela.

Estatu Batuetako eskuin muturrekoek presentzia eta antolaketa handia dute milizien mugimenduaren barruan. Langile-klasea parametro berdinetan antolatuta dago?

Estatu Batuetako langile klasea erabat atomizatuta dago eta asko sakabanatu da azken hiru hamarkadetan. Une honetan, hondarrak batzen eta hau berrekitzen ari gara. Eskuin muturrea Estatu Batuetan indartsuagoa da bi arrazoigatik, nagusiki. Lehena, maila instituzional eta finantzarioan duen babesarengatik. Eta, bigarrena, ezkerrek Estatu Batuetan inoiz irabazi nahi izan ez duelako. Izan ere, ezker estatubatuarren gehien-goia klase ertainekoa da. Gure alderdiaren helburua langile klasea MAGA mugimendua bere oinarri une honetan antolatzeke duen gaitasun berarekin antolatzeari da.



Jarki

INDEPENDENTZIA · SOZIALISMOA



jardun_koordinadora



jardun_koordinadora



JARDUN_KOORDINADORA
@JardunK



www.jardunkoordinadora.com